

Hilezkortasunaren BILA

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



Liburuaren izenburua oso adierazgarria da: bizia luzatzearen zientzia aztertzen dute egileek. Gizakiaren betiko nahia izan da bizia luzatzea; hitzaurrean esaten duten bezala, hilezkortasunaren bilaketa, gaixotasunen aurkako gerra eta heriotzaren beldurra gizakiaren kezka izan dira milaka urtez. Eta ez hori bakarrik. Industria bat jaio da gai horren inguruan. Egileen esanetan, bizia luzatzeko industria egia apur batetik abiatzen da, baina pseudozientziakantitate handi batekin nahasten da segituan. Liburuaren helburua da, hain zuzen, gai zabal eta korapilotsu horretan dagoen zientzia distilatzea eta aurkeztea.

Hilezkortasunaren ideiatik abiatzen da. Lehen kapituluan, ideia nondik sortu zen aztertzen dute, eta norantz eramaten duen. Eta, jakina, hilezkortasunaz zientziaren ikuspuntutik hitz egiteko, ezinbestekoa da heriotza eta zahartzea zer diren aztertzea. Hil egin behar dugu. Ugalketa sexualaren ondorio zuzena da. Eta hil egin behar dugu zahartze-prozesuari aurre egitea baino eraginkorragoa delako geneen transmisiorako. Azken batean, informazio genetikoa hilezkorra da, baina, horretarako, informazio genetikoa transmititzen dutenek, bizidunek, alegia, hil egin behar dute.

i

En Busca de la Inmortalidad

S. Jay Olshansky eta
Bruce A. Carnes

Ed. Grijalbo Mondadori

224 x 150 mm

ISBN: 84-253-3625-2

Jatorrizko izenburua:
The Quest for Immortality

Idea hori argitu ondoren, bizi-itxaropenaz hitz egiten dute egileek, eta aztertzen dute hura nola handitu den osasun-sistemari esker. Iraultza mediko bat gertatu da arlo horretan, eta iraultza hori ez da bukatu. Ahalegin handiak egiten dira oraindik ere bizi-iraupena handitzeke. Liburuaren bigarren erdian azaltzen dute hori.

Zahartzearen fisikaz eta kimikaz ere hitz egiten dute; substantzia antioxidatzaileez, adibidez. Eta bizitzearen muga genetikoak zein diren ikusita, muga horiek gainditzeko ahaleginak aurkezten dituzte. Baita ideia horren inguruko industria eta publizitatea ere.

Erraz irakurtzen da liburuak. Oso estilo atsegina eta didaktikoa du. Eta, beharbada, liburuaren dohain nagusia da zahartzearekin zerikusia duen zientziaren panorama oso bat eskaintzen duela. ●